



ERREGIMEN BEREZIKO KIROL IRAKASKUNTZEN FORMAKUNTZA ESKAINTZA

Kirol modalitatea: Saskibaloia
Maila: Erdi-maila
Zikloa: hasierakoa
Eskaintako plaza kopurua: 30
Formakuntza hasteko gutxieneko ikasle kopurua: 20

Arautegiaren erreferentzia

- Urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, erregimen bereziko kirol irakaskuntzen antolamendu orokorra ezartzen duena.
- Urriaren 30eko 980/2015 Errege Dekretua, saskibaloiko kirol-technikariaren titulua ezarri, eta dagozkion oinarriko curriculum eta sarbide-baldintzak finkatzen dituena, eta atletismoko kirol-technikariaren titulua ezarri eta dagozkion gutxieneko irakaskuntzak eta sarbide-baldintzak ezartzen dituen irailaren 6ko 669/2013 Errege Dekretua aldatzen duena.
- Maiatzaren 24ko ECD/481/2017 agindua, Saskibaloiko teknikari Tituluari dagokion erdi mailako hasiera eta bukaera zikloaren curriculum ezartzen duen (era gehigarrian ezarria).

Eskaintako irakaskuntzetarako sarbide eskakizunak

Sarbiderako eskakizun orokorrak

- ★ DBH edo irakaskuntzan baliokidea dena edo kirol irakaskuntzetarako irakaskuntza eskakizunak ordezkatzen dituen proba gainditzea.

Sarbiderako eskakizun zehatzak:

- ★ Izaera zehatzeko sarbide proba gainditua izatea edo gutxienez denboraldi batez federatu mailan lehiatu izana, infantil mailatik maila absolutura. Honen egiaztatzea Espainiako Saskibaloiko Federazioak Euskal Saskibaloiko Federazioaren edo dagokion lurralde federazioaren bitartez egingo du dagokion ziurtagiriarekin.

Hurrengo egiaztatzen duten kirolariek ez dute izaera zehatzeko proba gainditu edo kirol meritua egiaztatu behar:

- a) Goi mailako edo errendimendu altuko kirolarien gainean uztailearen 13ko 971/2007 Errege Dekretuak zehazten dituen goi mailako edo errendimendu altuko kirolaria izatea.
- b) Goi mailako edo errendimendu altuko kirolarien gainean Autonomia Erkidegoek beraien arautegian dioena betetzea.
- c) Azken bi urteen barruan maila absolutuko nazioarteko lehiaketa ofizial batean jokatzeko Espainiako Saskibaloiko Federazioak deitua izatea. Lehiaketa ofizialtatu honako hauek hartuko dira: Europako eta Munduko saskibaloiko txapelketak.
- d) Saskibaloiko Espainiako edo Autonomia ezberdinetako Federazioek antolatutako lehiaketa ofizialetan parte hartzen duten minibasket eta infantil pasarella taldeetako entrenatzaileak izaera zehatzeko probak edo kirol meritua aurkeztetik salbuetsita egongo dira 2019-2020 ikasturtean zehar.



Erdi mailako hasierako zikloaren egitura

Erdi mailako hasierako zikloa formakuntza moduluetan egituratzen da, bloke komun eta zehatzean

Bloke komuna eta zehatza osotzen duten formakuntza modulu ezberdinen banaketa jarraian adierazten dena izango da:

HASIERAKO ZIKLOA	
Bloke komuna	Ordu kopurua
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	20
MED-C102: Lehen sorospenak	30
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	5
MED-C104: Kirol Antolakuntza	5
Guztira	60
Bloke zehatza	Ordu kopurua
MED-BCBC102 Jokalariaren formakuntza hasierako etapetan	40
MED-BCBC103 Taldearen Zuzendaritza hasierako etapetan	20
MED-BCBC104 Saskibaloia irakaskuntza	35
MED-BCBC105 Erasoaren eta defentsaren taktika hasierako etapetan	20
MED-BCBC106 Formakuntza praktikoa	150
Guztira	265
Hasierako zikloa guztira	325

Formakuntza guztia gainditu ondoren, hau da, bloke komun eta zehatzeko formakuntza moduluak gainditu eta gero, **saskibaloi modalitateko erdi mailako hasierako zikloa gainditu izanaren ziurtagiri akademiko ofiziala** jasoko litzateke.

Ziurtagiri honekin, hurrengo puntuei lotutako eskuduntza orokorrak ziurtatuko lirateke:

- Kirol hastapenaren dinamizazioa, instrukzioa eta zehaztapena.
- Maila honi dagokien ekitaldi, lehiaketa eta jardueretan, kirolariei beraien parte hartzean laguntzea.

Guztia, erreferentziazko formakuntza modeloan ezarritako norabide eta segurtasun baldintzak jarraituz eta kalitate maila egoki batekin, kirolarien asebetetzea ahalbidetuz.



Saskibaloiko erdi mailako hasierako zikloaren ingurunea lan eta kirol arloan

Saskibaloiko erdi mailako hasierako zikloa lan eta kirol ingurunea kirol, aisialdi eta turismoan kokatzen da, entrenatzaile hauentzako lanpostu eta okupazio nabarmenenak 1mailako entrenatzaile eta saskibaloiko eskoletako monitorearena izanik, beraien jardueraren arlo publiko zein entitate pribatuaren burutuz hauen tamaina edozein izanda, kirol patronatuaren, federazio eta kirol klubaren, saskibaloiko eskoletan, kirol hastapen entitateetan, saskibaloiko kanpusetan, etab. Beti ere saskibaloikoari lotutako hastapen eta sentsibilizazio kirol-josteta jarduerak eskaintzen badituzte.

Bloke komun eta zehatzeko formakuntza moduluen ebaluaketa positiboarekin, formakuntza praktikoaren modulurako sarrera ahalbidetzen da.

HASIERAKO ZIKLOA	
Bloke komuna	Orduak
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	20
MED-C102: Lehen sorospenak	30
Guztira.	50
Bloke zehatza	Orduak
MED-BCBC102 Jokalariaren formakuntza hasierako etapetan	40
MED-BCBC104 Saskibaloikoaren irakaskuntza	35
Guztira.	265
Hasierako zikloa guztira.	325

Era berean, formakuntza praktikorako sarbidea ahalbidetzen duten aipatu moduluen ebaluaketa positiboarekin, dagokion Foru Aldundiak egiaztatutako formakuntza aitortu ondoren eta horretarako beraiek ezarritako baldintza zehatzak Beteta, **Saskibaloiko kirol modalitateko laguntzaile Monitore ziurtagiria lortuko da.**

Formakuntza praktikoaren formakuntza moduluen salbuespen partziala edo osoa

Ikasleek hurrengo koadroan adierazitako lan edo kirol arloko esperientzia egiaztatzen badute salbuespen osoa edo partziala lortu dezakete:

Hasierako zikloko formakuntza praktikoaren salbuespen osoa edo partziala	
MED-BCBC106	Egiaztatutako lan edo kirol arloko esperientzia
Formakuntza praktikoa	
Salbuespen osoa	300 ordu baino gehiago <i>Burututako jarduerak:</i> Saskibaloiko erdi mailako hasierako zikloko eskuduntzekin eta formakuntza praktikoko moduluen ikaskuntza emaitzekin erlazionaturako esperientzia.
Salbuespen partziala	<i>Jarduerak burutu den denbora:</i> Ikastaroa bukatu baino aurreko bi urteak.



Espainiako Federazioak edo dagokion Autonomia mailako Saskibalo Federazioak kirol esperientziaren gaineko dagokion ziurtagiria igorriko du, bertan burututako jarduera eta denbora adieraziko direlarik.

Lan esperientzia, esperientzia hori jaso den enpresa ziurtagiriaren bitartez egiaztatuko da. Bertan kontratuaren iraupena, burututako jarduera eta iraupena adieraziko direlarik. Norbere kontura lan egiten dutenen kasuan, derrigorrezko zergadunen erroldan altan emanda egotearen ziurtagiria eskatuko da, urte beteko gutxieneko iraupenarekin eta baita jarduera ordezkagarrienen interesdunaren adierazpen bat.

Eskaintza mota eta irakaskuntza saioen antolakuntza

Formakuntza eskaintza ahalik eta ikasle gehienentzat eskuragarri izateko eta ikasketak beste lan, kirol edo zeregin pertsonalekin batera burutzeko aukera izareko, formakuntza **honek izaera erdi-presentziala izango du, hau da aurrez aurreko saioak direnak eta ez direnak uztartuko dira.**

Bloke komun eta zehatzaren aurrez aurreko saioak eta saio ez-presentzialak

Bloke komuneko formakuntza moduluak erregimen ez-presentzian emango dira, Lehen Sorospenetako MED-C102 modulua izan ezik. Honek izaera erdi-presentziala izango du, hau da, irakaskuntza ez zuzendun saio telematiko asinkronikoak izaera praktikoko aurrez aurreko saio presentzialekin bateratuko dira.

Aurrez aurrekoak ez diren saioak e-learning metodologia erabiliz burutuko dira, bertan, irakaskuntza ez zuzeneko saio telematiko asinkronikoak eta tutoretza, errefortzuko sinkroniko/asinkronikoekin konbinatuko dira.

Bloke zehatzeko formakuntza moduluak erregimen berezian emango dira eta izaera teoriko eta praktikoa izango dute. Aurrez aurreko saio praktikoen barruan bi saio mota aurkituko ditugu:

- Irakaskuntza zuzeneko aurrez aurreko praktika saioak.
- Eduki kurrikularren garapen eta ezarpen praktikoko irakaskuntza saioak (hasierako etapetako entrenamendu eta kirol lehiaketen zuzentze saioak). Saio hauek ez dute irakaskuntza zuzenik.

Bloke komun zein zehatzeko aurrez aurreko irakaskuntza saioetara bertaratzea derrigorrezkoa izango da.

Aurrez aurrekoak ez diren formakuntza moduluen kasuan, tutoretza eta hezkuntza laguntza saio gehigarriak planifikatu ahalko dira, beharizan aipagarrien arabera.



Irakaskuntza saioa motaren araberako egutegia eta ordu kopurua

Hasiera	Amaiera	Egun kopurua	Zereginak
2019/05/31	2019/06/14	15	Matrikulazio epea
2019/06/17	2019/10/31	100	Formakuntzaren hasiera eta amaiera-praktikak salbuetsita (1.deialdia)
2019/06/17	2019/12/30	145	Formakuntzaren hasiera eta amaiera-praktikak salbuetsita (2.deialdia)
2019/09/30	2019/10/20	7	Ebaluazio probak (1.deialdia)
2019/12/02	2019/12/22	5	Ebaluazio probak (2.deialdia)
2019/11/04	2020/01/31	89	Praktika aldiaren hasiera eta amaiera (1.deialdia)
2019/12/20	2020/03/23	94	Praktika aldiaren hasiera eta amaiera (2.deialdia)

Formakuntzaren iraupena

Hasierako zikloko bloke komun eta zehatzak 14 asteko iraupena izango dute orotara, formakuntza praktikoko formakuntza modulua izan ezik.

Formakuntzaren iraupena bloke komun zein zehatzeko irakaskuntza saioen ordu kopuruaren eta egutegiaren arabera kalkulatu da. Hauek astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 15:00etara emango dira.

Erdi mailako hasierako zikloa gainditzeak Saskibaloia Modalitateko Kirol Teknikari Titulua lortzea dakar.

Ikastaroa bukatuta matrikulazio deialdi berri bat irekiko da erdi mailako gradu amaierako ziklorako, zeinek ikasleari bere irakaskuntzak bukatzea ahalbidetuko dion, horrela Kirol Teknikariaren titulazioa lortuz.

Ikastaroaren hizkuntza: Aukerakoa, euskaraz edota gaztelaniaz.

Irakaskuntza saioak burutuko diren tokia

Bloke komuneko aurrez aurreko praktiken saioak eta irakaskuntza zuzeneko aurrez aurreko saio teorikoak Kirol-teknikarien Eskola ASFEBI KIIB-n burutuko dira, Bilboko (BIZKAIA) Martín Barua Picaza Kaleko 27.zenbakian.

Orokorrean, bloke zehatzeko aurrez aurreko irakaskuntza saio praktikoak Kirol-teknikarien Eskola ASFEBI KIIB eta AMETX ERAKUNDE AUTONOMOAK (Amorebieta-Etxano) adostutako kiroldegiko instalazioetan burutuko dira.



Matrikulazio prezioa

Ikasle bakoitzak ordaindu beharreko matrikulazioaren prezioa 490€koa izango da. Prezio horretan formakuntza gainditzeko bi deialdi sartzen dira.

Konbalidazio, korrespondentzia eta salbuespenak eskatzen diren kasuetan bonifikazio batzuk aurreikusten dira, beti ere dagokion organoak aitortu ondoren.